

# DROGEA, GIZARTEAREN ONDAMENA

Gure gaurko mundu onek ba-dauka zertan arduratu. Arazo asko eta larriak daukaz-eta. Or doguz, adibide lez: Lanik-eza, amaigabeko guda zitalak, zuzentasunik-eza. era guztietako endakeriak, aberatsen eta txiroen arteko ezbardintasun itzelak, gaixotasun latzak: SIDA, esaterako eta DROGEA, besteak beste.

Azken oneri buruz itz egingo dogu gaur.

Len aitatu doguzanak gai kezagarriak dira benetan, bakoitza bere arloan, eta drogeari buruz beste orrenbeste esan lei.

Drogearen gaia, eguneroko barria da, zoritxarrez. Zein egunetan ez dogu entzun edo irakurri zelan mutil edo neska gazte bat il dan drogea larregi artzearren? Goibela benetan. eta txarrena dana, il arte izaten dabezan estualdi eta oiñazeak.

Baiña, ekin dagoigun arazoaren mamiari.

## ASIKEREA

Or da kakoa. Zelan asten da, edo beste era baten esanda, zelan sartzen da gazte bat mundu illun orretara?

Nik, epaitegi batean lan egiten dot eta gai onegaz zer ikusi asko daben gauzak ikusten dodaz. Gazteak zelan ondatuten dabezan euren bizitzak eta euren inguruan dagozenenak be: gurasoak eta senideak, bereziki.

Eta itaunduten dautsezunean zergaitik asi ziran droga artzen, batzuk diñoie jakin-miñez egin ebela. beste batzuk, ostera, obeto egoteko. Azkenean, bai batzuk eta bai besteak or gelditzen dira arapatuta, urten-eziñik.

Asikeran, oso ondo aurkezten jake droga gazteai eta gaiñera ezer ordaindu barik. zaletasuna sortzeko. Baiña denbora aurrera joan-ala, geroago ta droga geiago bear eta orregaz batera diru geiago be bai. Eta, nundik atara? Lenengo ta bein etxetik, gurasoei eskatuz edo kenduz. Orren ostean, kalean... al daben guztia lapurtu edo ostutera joan, bear daben drogea artu eta guzurrezko zoriontasun batean sartuteko.

Orrelan, gauza txar bi jazoten dira: Alde batetik, drogazaleen estutasuna geiagotuten da eta bestetik euren senideena be bai. Orra ondorio txar eta negargarriak.

## KONPONBIDEAK

Guzti on ikusita, danok pentsatu izan dogu gure artean: "Orretarako ez ete da urtenbideren bat izango?"

Bakoitzak euki lei berea, baiña. bitartean, or dogu arazoa, aurrez-aurre eta gelditu bank.

Gaur egun. bestalde, drogazaleai lagunduteko bagoduz Ian ederra egiten daben alkarte batzuk: "Bl

ETXEA", "LAGUN ARTEA", "GIZAKIA ELBURU", esaterako.

Talde oneik alegin aundiak egiten ari dira gazte orreik arazoari aurre egin dagioen.

Orretarako, baiña, gaixotuen borondate ona eta sendoa bear-bearrezkoa da, bestela eziñezkoa izango da bere osaketa. Zuk alegin danak egin ziñez bera salbatuteko, baiña drogazaleak ez ba'dau ezer egin gura, orduan alper-alperrik izango da dana.

Onetan be, beste gauza bat adierazo bear: Gazte orreik toki oneitatik urtetean, batzuk naiko osatuta egiten dabe. Kalean, ostera, droga-saltzailleak euren zain dagoz eta barriri jausten dira. Eta olan zer egin lei? Orren aurrean, berba guztiak gaiñez dagoz-eta.

## ETORKIZUNA

Ondorioz, zein izan leike neska-mutik onein geroa? Erantzun gatzeko itauna, egitan.

Alde batetik, goian aitaturako taldeen laguntzagaz eta jokera sendo ta iraunkor bategaz aukera bat izan leie egoera latz orretatik urten ta bizitzara biurtzeko.

Bestetik, geienetan jazoten dana, droga artzen eta artzen jarraitu, lapurketak egin eta azkenean, ia egunero izparringietan ikusi geinkenez, droga larregi artu eta edozein bazterretan ilda agertu. Amaiera txarra eta illuna, biziak beteta egozan gazte batzuentzako.

## AMAIERA

Eta orrela bardin jarraituten dogu, egun batean bai eta bestean be bai. Eta tamalgarriena da jakitea gazte gixajo orreik ilten ari dirala, beste batzuk, illuntasunean dagozanak, geroago ta diru eta almen geiago izan dagiezan.

Ludi onetan, dirua jaun da jaube dala ez dago ezpairik eta bera lortuteko edozer gauza egiten da; makiña bat gazte erailtea, adibidez. Ez zuzenkiro baiña bai drogea erabilliaz. Eta dana borobilduteko, benetako errudunak (erailtzailleak esango neuke nik) aske ta ezin-aberatsago biziten ikusi bear.

Erdal esakera batek diñoanez: "Txarri guztiai elduken jake euren Sanmartina. Kasu onetan alan bete bedi. Eta ez gorrotoz, zuzentasunez baiño. Amets gaizto au ainbat ariñen amaitu daiten, nai ta on amets bat baiño ez dana ondo j aki n.

Danok dakigunez, diruak almen aundia dau eta edozer gauza lortu leike. Zuzentasunari irabaztea be bai?

MALAX-ETXEBARRIA TAR JON  
"KALAMUA"